

Osteguna, 2013ko otsailak 28 - 10:53

Plaza

bilatu... Bilatu

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak Hitza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2013-01-08

La Oreja de Van Gogh taldeak zabalduko du sagardo garaia

Astigarragako Petritegi sagardotegian egingo dute txotx garaia hasteko ekitaldia, hilaren 16an

ERREDAKZIOA DONOSTIA

Musika talde batek izango du aurten sagardo garaia hasiera emateko ohorea: La Oreja de Van Gogh musika taldeak, hain zuzen; hura gonbidatu baitute aurten Astigarragara, sagardoaren txotx garaia zabaldu, eta «Gure sagardo berria» esanez denboraldia hasteko.

Ekitaldia hilaren 16an izango da, ohi bezala Astigarragako Petritegi sagardotegian (Gipuzkoa). Jende ugari bilduko da gonbidatuekin batera 2012ko sagardo uza dastatzera.

Sagardotegian bildu aurretik, ordea, Sagardoaren Museoa elkartuko dira. Han, Andoni Gartzia alkateak aurtengo uztaren ezaugarriak azalduko ditu, eta sagarra eta sagardoaren berri ere emango du. Sagardoarekin zerikusia duten ekitaldiak ere azalduko ditu, 12:00etatik aurrera Sagardoaren Museoa egingo den ekitaldian.

Sagardotegira abiatu aurretik, sagarrondo bat landatuko dute museoaren inguruan. Ekitaldi sinboliko horren bidez, naturaren berrikuntza adierazi nahi dute.

Eguneko ekitaldi nagusia, hala ere, Petritegi sagardotegian egingo da, orduan irekiko baitute urteko lehen txotxa. La Oreja de Van Gogh taldekoek «Gure sagardo berria» oihukatu eta gero, ofizialki zabalik geratuko da sagardo garaia. Lehen sagardoa dastatu eta gero, mahaiaren bueltan bilduko dira bazkaltzera.

Hernanin, igandean

Hernaniko sagardo denboraldia igande honetan zabalduko dute; horretarako, Euskadi Gazteko *Dida* taldeko kideak gonbidatu dituzte. Hala, Hernanin bilduko dira Joseina Etxeberria, Edurne Garmendia, Ainhoa Vitoria eta Jon Gotzon.

Txotx irekieraren ekitaldia 12:30ean hasiko da, eta gonbidatuek denboraldia zabaldu ondoren, bertara bildutako guztiek dastatu ahal izango dute sagardo berria. Gonbidatuei ordu erdi lehenago egingo diete ongietorria udaletxean, eta 12:15ean txalapartarien txanda izango da. Trikitilariak eta Los Incansables txarangak alaituko dute irekieraren ekitaldia, udaletxeko plazan.

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuena

Bidalienak

- 1 Garazi Urrestarazu: "Gobernuak ahaztuta du Sakana, eta guk laguntza behar dugu, kooperazioa"
- 2 "1999an bezala, erakundearen helburu behinetako bat nazio eraikuntza lan egitea da"
- 3 Euskara eta kultura ez dira sartuko Eusko Jaurlaritzaren marra gorrietan
- 4 Kukutza botatzeko baimena legezkotzat jo du epaileak
- 5 Polizien kolorea edozein izanda ere, torturak ikertzeko eskatu du Kalparsorok

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa  

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefona: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa







Laguntzaileak:





